

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak 26,7 milioi bideratuko ditu enpresetan I+G sustatzeko lau laguntza-deialditarako

*Diru-laguntzak 2016 eta 2019 ekitaldien artean ordainduko dira*

Miércoles, 09 de marzo de 2016

Nafarroako Gobernuak erabaki bat hartu du gaurko bilkuran eta, haren bidez, 26,7 milioi euroko urte anitzeko gastu bat baimendu du enpresei buruzko lau deialditarako. Laguntza horiek (haien deialdiak laster argitaratuko dira) enpresen I+G proiektuetarako, proiektu estrategikoetarako, Manunet IIrako eta industriako doktoregoetarako dira. Diru-laguntza horiek 2016, 2017, 2018 eta 2019ko ekitaldietako aurrekontuen kargura ordainduko dira.

- **Enpresen I+G proiektuak** (12 milioi euro). Haren helburua enpresek I+Gko proiektuak egin ditzaten sustatzea da, lehiakortasuna teknologia berriekin hobetzeko asmoz. Zehazki, enpresen arteko lankidetzaz erraztu nahi da, eta ezagutzaren sortzaile diren erakundeak kontratatzea. Laguntza horien hartzailak Nafarroan lantoki bat duten enpresak dira, eta I+Gko jarduerak lantoki horretan egiten dituztenak.

- **Proiektu estrategikoak** (12 milioi euro). Haren helburua, Nafarroarako definitutako sektore estrategikoei lotutako inpaktu handiko proiektu estrategikoak egin ditzaten sustatzea da. Zehazki, aurreko deialdiko proiektuak baino irismen handiagoko I+Gko proiektuak dira (denboran nahiz ekonomikoki). Proiektu horiek hiru urtetan garatuko dira, hainbat enpresa-motatako partzuergoak eskatuko dira, eta Nafarroako zentro teknologikoei nahiz ikerkuntzako erakunde publikoek parte hartzeko gutxienezko portzentaje batzuk finkatuko dira. Hala, sektore estrategikoetako enpresak mugiaraziko dira erreferentziazko enpresen bitartez, era horretako proiektuen buru izateko ahalmena dutenak.

- **Eskualdez gaindiko lankidetzako proiektuak eta jarduerak ("Manunet II")**, 500.000 euroko laguntza jasoko dute. Haren helburua, fabrikazioko teknologia aurreratuen arloko nazioarteko lankidetzan I+G proiektuak garatzea da (*manufacturing*). Proiektuetarako gutxienezko baldintza honako hau da: partzuergoan bi eskualde edo herrialde parte-hartzaileetako bi ETEk gutxienez parte hartzea, haietako bakoitza herrialde ezberdinetakoa izatea, eta proiektuaren barnean jarduera osagarriak egingo dituztenak. Nafarroako enpresek beren I+Gko proiektuak garatu ahal izatea da xedea, alde batetik laguntza publikoaren finantzaketa izanik eta bestetik funts propioak erabiliz.

- **Industriako doktoregoak (ikertzaileak eta teknologoak kontratatzeko laguntzak)** 2.200.000 euro jasoko dute. Haren helburua urte anitzeko finantzaketa-eskema bat ezartzea da, enpresetako beharrak

kontuan hartuko dituen talentu-harrobi egokia bat prestatze aldera.

Ikertzaileak prestatzen laguntzen duen programa bat da, erronka konplexuei aurre egin beharko die (diziplina artekoak, sarritan), zorrotzak diren bideragarritasun nahiz kalitatezko eskaera batzuk izanik.

Deialdi honen funtsezko elementua enpresa baten ikerketa-proiektu estrategiko bat da, eta bertan, doktoregaiak bere ikerketako prestakuntza garatuko du, unibertsitate baten laguntzarekin, eta doktorego-tesi baten xede izango da.